


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure baliabideek gure negozio-ereduak funtzionatzea, bezeroengana iristea, hauekin harremanak izatea eta diru sarrerak izatea ahalbidetzen dute eta hainbat azpitaldetan banatzen dira:

- Baliabide fisikoak: enpresaren jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak diren elementuak dira. Instalazioak, ordenagailuak...adibidez.
 - Instalazioak: gure produkzioa bergarako industria eremuan eramango dugu aurrera. Bertan dugun pabeioi batean finkatuko ditugu gure instalazioak.
 - Bulegoak: bulegoak denon artean erabakiak hartzeko erabiliko ditugu. Gure produktuaren inguruko zalantzak, hobetzekoak... erabakiko ditugu bertan. Bertan hartutako erabakiak gainontzeko esparruetara zabalduko ditugu.
 - Telefonoa eta webgunea: gure produktua ezagutarazi eta bezeroekin kontaktua mantentzeko.
 - Makinak: gure industria eremuan egongo dira, eta gure edukiontzia sortzeko erabiliko ditugu. Erabiliko dugun makineria edukiontzia osatuko duen metalari forma emateko, inguratzen duen plastikoa finkatzeko, koloreztatzeko...izango da.
 - Garraioa: kamioiak izango ditugu edukiontziak leku batetik bestera garraiatzeko, baita bertan jasotako hondakinak biltzeko.
 - Salmentako puntua: gu zuzenean herrietako udaletxeekin jarriko gara kontaktuan hauei guk bertan ezarri nahi dugun edukiontziaren berri emanez.



- Baliabide intelektualak eta giza-baliabideak: Giza baliabidea elementu bereizgarria da enpresan. Giza baliabideak enpresan lanerako dituzten indarrak dira, hau da pertsonak eta bere prestakuntzak. Giza baliabideen barnean hainbat funtzio dira garrantzitsuak.
- Baliabide finantzieroak: 3.000.000€-ko mailegua eskatuko diogu KUTXA bankuari eta %6koa da interesa. Pixkanaka-pixkanaka ordaintzen joago gara hilabetero.

